

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

3514

AGINDUA, 2026ko uztailaren 29koa, Jaurilaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez ezartzen baitira laguntza hauek emateko oinarri arautzaileak: eguneroko komunikabide profesional akreditatuentzako laguntzak, kazetaritza arduratsuaren alde egiteko, desinformazioaren kontra borrokatzeko eta alfabetatze mediatikoko gaitasun aurreratuak indartzeko. Halaber, laguntza horien 2026rako deialdia egiten da.

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak iritzi- eta adierazpen-askatasunerako eskubidea eta informaziorako eskubidea aldarrikatzen dituzte, pertsonen eta herrien oinarrizko eskubide besterenezin gisa. Informaziorako eskubidea, era berean, gizarte demokratikoak eratzeko eta garatzeko ezinbesteko eta funtsezko osagaia da. Europar Batasunak, halaber, komunikabideen askatasunarekiko eta haien aniztasunarekiko errespetua defendatzen du. Europako printzipio eta balio horiek defendatzen jarraitzeko, eta desinformazioaren eta fake news edo albiste faltsuen fenomenoaren gero eta mehatxu handiagoaren aurrean, 2025eko uztailan Europako Batzordearen Desinformazioari buruzko Jardunbide Egokien Kodea sartu zen indarrean. Kode horrek informazio faltsu edo engainagarri kaltegarriaren hedapena mugatzen duten neurriak garatzeko eta aplikatzeko eskatzen du, eta desinformazioaren aurkako borroka funtsezkoa dela adierazten du, ondo informatutako herritarrei beren borondatea adierazteko aukera ematen dieten eztabaida publikoen mendeko gizarte demokratikoak babesteko.

Informazio-panorama konplexuagoa bihurtzen den heinean, alfabetatze mediatikoa eta informazionala funtsezkoa bihurtzen da pertsonen benetako informazioa, alde batetik, eta faltsukeria eta manipulazioa, bestetik, bereizteko aukera emateko. Alfabetatze mediatikoa pertsonen informazioa eskuratzeko, ulertzeko, sortzeko eta kritikoki ebaluatzeko dituzten gaitasunen arteko erlazioa da, eta ez da soilik alfabetatze mediatiko tradizionalera mugatzen; orain alfabetatze digitala ere hartzen du.

Eusko Jaurilaritza jakitun da errealitate horrek herritarren informaziorako eta gizarte gisa dugun demokraziarako eta garapenerako eskubidearentzat dakarren arriskuaz, eta garrantzi handiko balioa ematen dio komunikabide profesionalen lanari, bereziki toki-, eskualde- eta autonomia-eremuko komunikabideei, funtsezko eta balio handiko eginkizuna baitute gizarteetan herritarrei jatorrizko informazio-iturri zuzena eta lehen eskukoa ematen baitiete. Herritarren informazio-eskubidea betetzeko eta desinformazioaren aurkako borrokan ezinbesteko eragileak dira eta balio demokratikoak garatzen laguntzen dute.

Horregatik guztiagatik, laguntza honen oinarrizko helburua da komunikabideek kazetaritza arduratsuaren alde egitea, sortutako desinformazioari aurre egitea, eta, azkenik, gizarte, oro har, eta, bereziki, desinformatuen eta/edo alfabetatze gutxien duten taldeak, mediatikoki alfabetatzeko ekimenak eta/edo tresnak sustatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren arabera, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari dagozkio gizarte-komunikabideei buruzko egitekoak eta haien zabalkundea. Funtzio horiek Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzari esleitu zaizkio, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuaren bidez.

Gainera, agindu hau Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren 2025-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartuta dago. Plan estrategiko hori Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2025eko otsailaren 27ko Aginduaren bidez onartu zen, eta 2026ko otsailaren 17ko Aginduaren bidez aldatu. Halaber, 2026ko Dirulaguntzen Urteko Planean sartuta dago, zeina Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2026ko otsailaren 17ko Aginduaren bidez onartu baitzen. Bi planak Sailaren webgunean argitaratuta daude, eta esteka honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/dup-dpe-khps>

Deialdi hau hornitzeko kreditu nahikoa eta egokia dago, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2026rako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 7/2025 Legea aplikatuz.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Agindu honen bidez, onartu egiten dira laguntza hauek emateko oinarri arautzaileak: eguneroko komunikabide profesional akreditatuentzako laguntzak, kazetaritza arduratsuaren alde egiteko, desinformazioaren kontra borrokatzeko eta alfabetatze mediatikoko gaitasun aurreratuak indartzeko. Halaber, laguntza horien 2026rako deialdia egiten da.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honetan aipatzen diren dirulaguntzak honako hauetan xedatutakoaren mende egongo dira: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea; Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea; Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean jasotako oinarritzko araudia; azken horren Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, eta administrazio-zuzenbideko gainerako arauak. Halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, pertsona edo entitate interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaioke Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 29a.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
IBONE BENGOTXEA OTAOLEA.

ERANSKINA

OINARRIAK, DEIALDI HONENAK: EGUNEROKO KOMUNIKABIDE PROFESIONAL AKREDITATUEI 2026. URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA, KAZETARITZA ARDURATSUAREN ALDE EGITEKO, DESINFORMAZIOREN KONTRA BORROKATZEKO ETA ALFABETATZE MEDIATIKOKO GAITASUN AURRERATUAK INDARTZEKO.

I. KAPITULUA

ARAU OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

Oinarri hauen xedea da kazetaritza arduratsuaren alde egiteko, desinformazioen kontra borrokatzeko eta alfabetatze mediatikoko gaitasun aurreratuak indartzeko dirulaguntzen esleipena arautzea.

2. artikulua.– Dirulaguntza-lerroak eta baliabide ekonomikoak.

1.– Dirulaguntza hauetara bideratutako zenbateko osoa 7.000.000 eurokoa da.

2.– Deialdi honetan jasotako laguntza-ildoak kontuan hartuta, zenbateko osoa honela banatuko da:

a) 1. lerroa: EAEko esparruko eguneroko komunikabide jeneralistentzako laguntzak, II. kapituluan ezarritako baldintzetan. Zuzkidura: 6.000.000 euro.

b) 2. lerroa: Tokiko edo eskualdeko edukiak dituzten eguneroko komunikabide jeneralistentzako laguntzak, III. kapituluan ezarritako baldintzetan. Zuzkidura: 1.000.000 euro. Dirulaguntza-lerro hau bi azpillerrotan banatzen da:

– 2.1 azpillerroa: CIESe egindako 2025eko metatuari dagokion Hedabideen Audientzia Azterlaren arabera, gutxienez 4.000 ikus-entzule dituzten komunikabideentzako laguntzak. Zuzkidura: 700.000 euro.

– 2.2 azpillerroa: CIESe egindako 2025eko metatuari dagokion Hedabideen Audientzia Azterlaren arabera, 4.000 pertsona baino gutxiagoko audientzia duten komunikabideentzako laguntzak, edo Google Analyticsen 2025eko audientziaren laburpen-txostena aurkez dezaketen toki- edo eskualde-eremuko komunikabideentzako laguntzak. Zuzkidura: 300.000 euro.

3. artikulua.– Denbora-eremua.

Diruz lagundu daitekeen proiektua edo jarduera 2026. urtean garatu beharko da, eta urte horretako abenduaren 14rako amaituta egon beharko du (egun hori barne).

4. artikulua.– Entitate onuraduna izateko betekizun orokorrak.

1.– Deialdiaren xede diren laguntzak jaso ahal izango dituzte eguneroko komunikabideen entitate titularrek, baldin eta betekizun hauek betetzen badituzte:

a) Eguneroko komunikabide pribatu jeneralistak, honako mota hauetakoak:

– Prentsa idatzia.

– Hedabide natibo digitalak.

– Irratiak.

– Telebistak.

b) EAEn egoitza edo lurralde-ordezkaritza izatea.

c) EAEko biztanle guztientzat albisteak eta eguneroko gaurkotasuneko gaiei buruzko edukiak eskaintzea, edo bere eremuko biztanleentzat interes orokorreko tokiko edo eskualdeko edukiak eskaintzea.

– Gutxienez % 15 EAEko ekoizpen propioko edukiak izan beharko dira. Dirulaguntza honen ondorioetarako, irrati eta telebisten kasuan, eduki propioetat jotzen da programazioaren % 15 gutxienez izatea astelehenetik ostiralera eta 07:00etatik 24:00etara, lurralde-deskonexioan eta EAEko biztanleei bereziki zuzendua. Betekizun hori deialdiaren denbora-eremuko hilabete guztietan bete beharko da.

Aipatutako deskonexioaren iraupena zenbatzeko, ekoizpen propioko edukitzat hartuko dira interesdunak soilik sortutako albisteak eta eguneroko gaurkotasuneko gaiei buruzko edukiak.

d) Gutxienez 5 langile izatea plantillan 2025eko abenduaren 31n, eta gutxienez plantilla-maila horri eustea diruz lagundu daitekeen proiektuak edo jarduerak irauten duen hilabeteetan.

e) Eskatzaileak dagokion berme erreala eratzeko konpromisoa hartzen du, baldin eta ordaintza aurreratuaren zenbatekoa 180.000 eurotik gorakoa bada.

2.– Aurreko apartatuan aurreikusitakoaz gain, entitate onuradunek betekizun hauek bete beharko dituzte:

a) Egunean izatea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, 2023ko otsailaren 13ko Aginduan ezarritakoaren arabera (Agindua, 2023ko otsailaren 13koa, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kargurako laguntzen eta dirulaguntzen esparruan dirulaguntzak itzultzeari eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak itzultzeari buruzkoa).

b) Dirulaguntzak itzultzeagatiko betebeharrak ordainduta izatea Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko 2023ko otsailaren 13ko Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren Aginduan ezarritakoaren arabera.

c) Eskatzaileak, artikulua honetan jasotako betekizun orokorrez gain, laguntza eskatzen duen dirulaguntzaren lerroaren edo azpillerroaren betekizun espezifikoak bete beharko ditu.

d) Onuradun izanez gero, enpresa-deslokalizaziorik ez egitea, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikulua arabera.

3.– Ezingo dituzte oinarri hauetan aurreikusitako dirulaguntzarik eskuratu honako entitate hauek:

a) Epai irmo bidez, dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorra jaso dutenak edo prebrikazio, eroskeria, diru publikoen erabilera bidegabekia, eragimen-trafiko, iruzur eta ordainarazpen ilegal edo hirigintza-delituak direla eta zigorra jaso dutenak.

b) Hartzekodunen konkurtso boluntario deklaratzeko eskaria egin dutenak, edozein prozeduratan kaudimengabetzat jota daudenak, hartzekodunen konkurtsoan deklaratura daudenak, epailearen esku-hartzearen mende daudenak, edo uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legearen arabera desgaituta daudenak.

c) Administrazioarekin egindako edozein kontratu ebazpen irmoz suntsiarazteko arrazoiak sorrarazi eta haien errudun deklaratu izan direnak.

d) Pertsona fisikoak, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen ordezkari direnak, egoera hauetakoren batean badaude: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasunen araubideko egoeraren batean eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean aurreikusitako egoeraren batean. Edo Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko kargu batean daudenak, arau horretan edo gai hauek arautzen dituen arau autonomikoan ezarritakoaren arabera.

e) Egoitza fiskala paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurralde batean dutenak.

f) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen edo hala ezarritzen duten beste lege batzuen arabera, dirulaguntzak eskuratzeko aukera galtzeko zehapena jaso dutenak, ebazpen irmo baten bidez.

g) Armamentua ekoiztu, merkaturatu eta finantzatzen dutenak.

h) Sexuan oinarrituta diskriminatzeagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarri zaienak.

i) Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plana indarrean izan behar duten arren, halakorik ez dutenak.

j) Sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresak, Estatuko legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan ezarritako baldintzetan.

k) Ekonomia zirkularra bultzatzeko hondakinen eta lurzoru kutsatuen apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitakoaren arabera, arau-hauste astun edo oso astun batengatik zehatuta daudenak, harik eta behar diren neurri zuzentzaileak hartu eta zehapena ordaindu arte.

l) Desgaitasuna duten pertsonentzat legez ezarritako erreserba-kuota betetzen ez dutenak, hori betetzeko neurri alternatiboak abian jarri direla egiaztatu gabe.

m) Europako Batzordeak laguntza bat legez kanpokoa eta merkatu erkidearekin bateraezina dela erabaki ondoren, laguntzak berreskuratzeko agindu baten mende daudenak.

n) Krisialdian dauden enpresak, krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko zuzentarauen definizioaren arabera (2014-07-31ko EBAO, C249).

ñ) Sektore publikoren batekoak direnak edo haietako kide direnak, aplikatzekoak diren erakunde-sailkapeneko arauen arabera.

o) Pertsona transen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeari buruzko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluan adierazitako kasuetako batean daudenak.

p) 30.000 eurotik gorako dirulaguntza jaso nahi izanez gero, eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeak betetzen direla egiaztatzen ez dutenak.

4.– Aurreko apartatuetan adierazitako betekizunak eskabidea aurkezten denetik dirulaguntza likidatu arte bete beharko dira.

5.– Nolanahi ere, kanpoan geratzen dira titulartasun publikoa duten komunikabideak eta, albis-teen eta eguneroko gaurkotasuneko gaiei buruzko edukien ordeztu, informazio espezializatua eskaintzen duten komunikabide pribatuak (kirol, zientzia, osasun, ekonomia, irriti formula musi-ka, erlijio edo beste edozein motatako eduki tematikoak) eta iritzi- edo entretenimendu-edukiak dituztenak.

5. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Komunikabidearen entitate titular bakoitzak eskabide bakarra aurkeztuko du, hargatik era- gotzi gabe entitate horiek komunikabide-taldeetako kide izatea.

2.– Komunikabidearen entitate titular den bakoitza deialdi honetako lerro edo azpillerroetako batera baino ezin izango da aurkeztu. Eskabide bat baino gehiago aurkeztuz gero, bai dirulaguntza lerro berean, bai azpillerroetan, eskatzaileak atzera egin beharko du aurkeztutako eskabideetan, eutsi nahi dion eskaeran izan ezik.

3.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizka- rian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

4.– Entitate interesdunak behartuta daude eskabideak bide elektronikotik izapidetzera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Entitate interesdunek eskabidearen izapide guztiak eskatu, kontsultatu eta egin ahal izango dituzte EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen bitartez, helbide hauetan:

a) 1. lerroa: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1250507>

b) 2. lerroa:

– 2.1.– azpillerroa: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1250508>

– 2.2.– azpillerroa: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1250509>

Eskaera egin osteko izapide elektronikoen, jakinarazpenak barne, EAEko Administrazio Publi-koaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» aplikazioaren bidez egingo dira, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>.

EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen onartutako identifikazio eta sina- dura elektronikorako bitartekoak helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

5.– Eskabidea eta ondorengo izapideak entitate eskatzailearen ordezkari batek egin ahal izango ditu, modu elektronikoen; horretarako, ordezkariak ahalordeen erregistro elektronikoen inskribatu beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkarriak> Nolanahi ere, izapideak bitar- teko elektronikoen bidez egin beharko dira, interesduna behartuta baitago administrazioarekiko harreman elektronikoa izatera.

6.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak izapidetzeko jarrai- bideak 4. puntuan jasotako EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen helbidean daude eskuragarri.

7.– Entitate eskatzaileak Euskal Autonomia Erkidegoko edozein hizkuntza ofizialetan aurkeztu ahal izango ditu eskabidea eta hari erantsitako egiaztagiria. Halaber, eskabidearen ondoriozko jarduketetan, eta prozedura osoan, entitate eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2 a) eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

8.– Eskabideak aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak definitzen dituzten baldintzak espresuki eta formalki onartzea.

6. artikulua.– Eskabidean aurkeztu beharreko dokumentazioa eta erantzukizunpeko adierazpenak.

1.– Entitate eskatzaileek informazio honekin bete beharko dute prozeduraren eskabidearen formularioa:

a) Entitate eskatzailearen datuak.

b) Komunikabidea (izena).

c) Komunikabide mota.

Apartatu honetan, entitate eskatzaileek beren audientzia kontuan hartzea nahi duten hedabide mota guztiak hautatu beharko dituzte, prentsa idatzia, hedabide natibo digitalak, irratia edo telebista bereizita. Audientzia zenbatzeko, ez dira kontuan hartuko entitateek hautatu ez dituzten hedabide motak, ezta harpidetza bidezko prentsaren audientzia ezta egunerokoak ez diren argitalpenak ere.

d) Proiektuaren edo jardueraren deskribapen laburra.

e) Proiektuaren edo jardueraren garapenean zuzenean parte hartzen duten komunikazioko, kazetaritzako, informazio-zientzietako eta/edo ikus-entzunezko komunikazioko titulaziodun langileen kopurua (plantillan/kontratazio-aurreikuspena).

f) Proiektuaren edo jardueraren gastuen aurrekontu xehatua eta banakatua.

2.– Administrazio honi dagozkion erregistroetan inskribatutako entitateek:

Eskabidean adieraziko dute zein erregistrotan dauden inskribatuta. Administrazio honetakoak ez diren erregistroetan inskribatutako entitateek haien legezko eratzea egiaztatu beharko dute, beren izaera juridikoaren arabera, bai eta pertsona ordezkariaren identitatea ere; gainera, ordezkaritza-ahalorde nahikoa dutela justifikatu behar dute. Horretarako, agiri hauek aurkeztuko dituzte:

– Eratze-eskritura eta estatutuak, bai eta dagozkien erregistro publikoetan inskribatuta daudela egiaztatzen duten agiriak ere.

– Identifikazio fiskaleko zenbakia egiaztatzen duen txartela.

– Pertsona juridikoaren legezko ordezkariaren identitatea egiaztatzeko agiria, bai eta haren ordezkaritza-ahalordea egiaztatzeko agiria ere.

Horri dagokionez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, entitate interesdunek eskubidea dute jada administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak ez aurkezteko; horrela, Administrazioak agiri horiek kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu, interesdunak horren aurka egiten ez badu.

3.– Desinformazioaren aurka borrokatzeko proiektuaren edo jardueraren memoria zehatza, gizartearentzako alfabetatze mediatikoan konpetentzia aurreratuak indartzen dituen, gutxienez honako alderdi hauek barne hartuta:

- Desinformazioari aurka egiteko edukiak eta informazioak sortzeko, lantzeko eta argitaratzeko gai den diziplina anitzeko lantaldea. Horretarako, kideen profil profesionalak zehaztuko dira.

- Talde horren formakuntza/gaikuntza, desinformazioaren identifikazioari, detekzioari eta erantzunari eta/edo alfabetatze mediatiko aurreratuak sustatzeko jarduketei dagokienez.

- Gizartearen alfabetatze mediatikoa sustatzen duten ekimenak eta/edo tresnak, bai eta mediatikoki gutxien alfabetatuta dauden taldeenak ere.

- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko desinformazioaren aurka, emakumeen aurkako indarkeriaren aurka eta LGTBI pertsonen eskubideen aurka borrokatzeko neurriak edo mekanismoak.

4.– Entitate eskatzaileek adierazi beharko dute zenbat langilek parte hartuko duten zuzenean proiektuaren edo jardueraren garapenean (plantillako kideak nahiz kontratatzeak diren langile berriak), baldin eta titulu ofizial hau badute: gradua, lizentzia edo diploma komunikazioan, kazetaritzan, informazio-zientzietan eta/edo ikus-entzunezko komunikazioan.

Entitate eskatzaileek, eskabidearekin batera, langileen berariazko baimena eskatu eta aurkeztu beharko dute, duten titulazio ofizialaren elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez kontsulta egiteko. Ez badu pertsonaren berariazko baimenik aurkezten, edo organo kudeatzaileak ezin badu titulazioa elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez lortu, entitate eskatzaileek titulazio horiek aurkeztu beharko dituzte, organo kudeatzaileak hori egiazta dezan.

5.– 50 langile baino gehiago dituzten entitate eskatzaileek betekizun hauek betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

- Sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horri aurre egiteko neurriak ezarri izana, Estatuko legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan ezarritako baldintzetan.

- Desgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuak erreserbatzeko lege ezarritako kuota bete izana egiaztatzen duen dokumentazioa edo kuota hori betetzeko neurri alternatiboak abian jarri izana egiaztatzekoa.

6.– III. kapituluko 2.2 azpilarroa aukeratzen duten toki- edo eskualde-eremuko komunikabideek, CIESe egindako 2025eko metatuari dagokion Hedabideen Audientzia Azterlanean agertzen ez direnak, Google Analyticsen audientziaren laburpen-txosteneko erabiltzaile berrien datuak aurkeztu beharko dituzte, 2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra bitarteko aldiari dagozkionak.

7.– Era berean, 2025eko abenduaren 31n plantillan 5 langile izateko betekizunari dagokionez, eskatzaileek hori betetzen dutela egiaztatu ahal izango dute, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren Kotizazioen Likidazioaren Ordainagiria (lehengo TC1), 2025eko abenduari dagokiona, edo erakunde ofizial bateko beste edozein, edo Zuzenbidean onartutako baliozko edozein bitarteko aurkeztuta, alderdi hori egiaztatzeko.

8.– Entitate interesdunak betekizun hauek betetzen dituela adieraziko du, eskabidean jasotako erantzukizunpeko adierazpenaren bidez:

- a) Ez duela jaso helburu bererako bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik beste edozein administrazio edo ente publiko nahiz pribatutatik.

b) Ez dagoela kondenatuta epai irmo bidez dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukerarik gabe utzita, eta ez dagoela kondenatuta delitu hauetako bat egiteagatik: prebrikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe eralgitzea, influentzia-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

c) Ez duela egin hartzekodunen konkurtso boluntarioa deklaratzeko eskaria, ez dagoela edozein prozeduratan kaudimengabetzat jota, ez dagoela hartzekodunen konkurtsoan deklaratura, ez dagoela epailearen esku-hartzearen mende, edo ez dagoela desgaituta uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legearen arabera.

d) Kausaren batean errudun deklaraturia izateagatik, ez duela eragin Administrazioarekin egin-dako ezein kontraturen suntsiarazpen irmoa.

e) Ez entitatearen administratzaileak, ez haren legezko ordezkariak ez daudela egoera hauetako-
ren batean: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasunen araubideko egoeraren batean ezta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean aurreikusitako egoeraren batean ere, edo ez dagoela Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko kargu batean, arau horretan edo gai hauek arautzen dituen arau autonomikoan ezarritakoaren arabera.

f) Ez duela egoitza fiskala paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurralde batean.

g) Egunean dituela dirulaguntzak organo emaileari berreskuratu behar izateagatik sortutako obligazioen ordainketak Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko 2023ko otsailaren 13ko Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren Aginduan ezarritakoaren arabera.

h) Ez duela jaso ebazpen irmo bidez dirulaguntzak jasotzeko aukera galtzeko zehapenik, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen edo hala ezartzen duten beste lege batzuen arabera.

i) Ez duela bere jardura garatzen armen ekoizpen, merkaturatze eta finantzaketaren arloetan.

j) Ez zaiola ezarri sexuan oinarrituta diskriminatzeagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik zigor administratibo edo penalik.

k) Ez dagoela zehatuta Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astun batengatik eta administrazio-bideko ebazpen irmo baten bidez, neurri zuzentzaile egokiak hartu eta zehapena ordaindu gabe.

l) Ez dagoela dirulaguntzak berreskuratzeko agindu baten menpe, Europako Batzordeak aldeztutako aurretik erabaki badu laguntza legez kanpokoa eta merkatu erkidearekin bateraezina dela.

m) Ez dela krisialdian dagoen enpresa, krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko zuzentarauen arabera (EBAO 2014/C 249/01).

n) Ez dela sektore publikoetako bateko kide, aplikagarriak diren sailkapen instituzionaleko arauen arabera.

ñ) Ez dagoela pertsona transen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeari buruzko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluan adierazitako egoeretako batean ere.

o) Eskatutako dirulaguntzaren onuradun izanez gero, interesdunak enpresa-deslokalizaziorik ez egiteko konpromisoa hartzen du, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikulua araber.

p) 180.000 eurotik gorako aurretiazko ordainketa duen dirulaguntzaren onuradun izanez gero, dagokion berme erreala eratzeko konpromisoa hartzen du entitate onuradunak.

q) Entitate eskatzaileak dirulaguntzaren xede diren eragiketetan jasandako BEZ guztia berreskuratzeko eskubidea duela adierazten du.

9.– Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzak automatikoki egiaztatuko du, elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez, eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela dirulaguntzaren esleipen-proposamena egin aurretik.

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta eduki beharko dira, gutxienez, dirulaguntzaren azken ordainketa justifikatu arte.

10.– Horrez gain, organo kudeatzaileak EAEko edo estatuko Hitzarmenen, Lan Akordio Kolektiboen eta Berdintasun Planen Erregistroa eta Gordailuaren bidez ofizioz egiaztatuko du berdintasun-planik badaukaten horretara behartuta dauden entitateek.

11.– Era berean, organo kudeatzaileak eskabide-inprimakian irratia eta/edo telebista hedabide motak adierazi dituzten entitate interesdunei eskatu ahal izango die deialdiaren xede den denbora-eremuk hainbat egunetako 07:00etatik 24:00etara bitarteko audio eta/edo bideoen legezkopioa aurkez dezatela, 4.1.c) artikuluan adierazitako betekizuna egiaztatzeko.

7. artikulua.– Akatsak zuzentzea.

Eskabideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioak oinarri hauetan ezarritako betekizun guztiak betetzen ez badituzte, edo haien edukia osatu gabe dagoela ikusten bada, entitate eskatzaileari eskatuko zaio 10 egun balioduneko epean dokumentazioa osatzeko edo akatsak zuzentzeko, eta adieraziko zaio ezen, hala egin ezean, ulertuko dela haren eskabidean atzera egin duela edo izaipidetzeko eskubidea galdu duela, aldez aurretik ebazpena emanda.

8. artikulua.– Laguntzen kudeaketa.

Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen zuzendaria da deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak kudeatzeko organo eskuduna.

9. artikulua.– Dirulaguntzak emateko prozedura.

Oinarri hauetan jasotako dirulaguntzak 20. eta 24. artikuluetan aipatzen diren laguntza-lerro edo azpillerro bakoitzean banatuko dira, norgehiagoka ez den lehiaketa bidez. Horretarako, aurkeztutako eskabide guztiak alderatuko dira eta puntuazioaren arabera ordenatuko dira, 22. eta 26. artikuluetan jasotako balorazio-irizpideak aplikatuta. Hala ere, proiektuaren edo jardueraren kalitateari buruzko irizpidean gutxienez 10 puntu lortzen ez dituzten eskabideak automatikoki baztertuko dira. Puntuazio nahikoa lortu duten entitate eskatzaileei dirulaguntza proportzionalki adjudikatuko zaie, deialdian ezarritako mugak kontuan hartuta.

10. artikulua.– Balorazio Batzordea.

1.– Dirulaguntzen betekizun orokorrak eta lerro eta azpillerro bakoitzerako espezifikoak egiaztatu ondoren, organo kudeatzaileak balorazio-fasera igarotzen diren onartutako eskaerak adieraziko

ditu bere txostenean. Dirulaguntzen lerro eta azpillerro bakoitzean aurkeztutako eskabideak ebaluatzeko, dagokion Balorazio Batzordea eratuko da. Eskaeren balorazioa dirulaguntza-lerroetarako ezarritako adjudikazio-irizpideetan oinarrituko da, eta Balorazio Batzordeak egindako ebaluazioaren emaitza txosten batean jasoko da.

2.– Batzordea honako hauek osatuko dute:

- a) Ainara Larrondo Ureta. Kazetaritza Saileko irakasle titularra (UPV/EHU).
- b) Simón Peña Fernández. Kazetaritza Saileko irakasle osoa (UPV/EHU).
- c) Leire Iturregi Mardaras. Kazetaritza Saileko irakasle agregatua (UPV/EHU).

3.– Balorazio Batzordeko lehendakariaren eginkizunak beteko ditu adin handieneko kideak eta, kalitate-botoarekin ebatziko ditu gerta litezkeen berdinketak.

4.– Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzako teknikari bat izango da batzordeko idazkaria, eta hitza izango du, baina botorik ez.

5.– Balorazio Batzordeko kideek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, honako hauek adierazteko: ez daudela sartuta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitako abstentzio-kausetan, konfidentzialtasuna bermatzen dutela, eskaerazaleek aurkeztutako dokumentazioa ez dutela erabiliko deialdi honetan ezarritako irizpideen arabera proiektuak baloratzeko ez den beste helburu baterako eta, txostena egin ondoren, espedienteen dokumentazio guztia deialdiaren organo kudeatzaileari itzuliko diotela.

6.– Balorazio Batzordeak egoki irizten dionean, aholkularien laguntza eskatu ahal izango du, baita proiektuaren edo jardueraren gai zehatz eta espezifikoetan edo zeharkako gaietan (genero-ikuspegia, esaterako) adituak diren pertsonen laguntza ere.

7.– Balorazio Batzordea balio osoz eratzeko, gutxienez lehendakari eta idazkari karguak dituztenak bertaratu beharko dira, baita gutxienez kideetako bat ere.

11. artikulua.– Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateraezinak dira beste edozein entitate publikok edo pribatuk xede bererako eta denbora-eremu bererako eman ditzakeen bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin.

12. artikulua.– Kudeaketa, ebazpena, errekursoak, ebazteko eta jakinarazteko epeak, jakinarazpen- eta publizitate-modua.

1.– Organo kudeatzaileak espedientearen eta Balorazio Batzordearen txostena aztertuta, eta, oinarrien 23. eta 27. artikuluetako formulak aplikatu ondoren, ebazpen-proposamena egingo dio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari. Ebazpen-proposamen horrek jasoko ditu: prozedura bakoitzean onuradun gisa proposatutako entitateen zerrenda, emandako zenbatekoak, bai eta onartu ez diren eskabideak eta ukatzea proposatzen den eskabideak ere, zergatik ukatu diren adierazita.

2.– Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak agindu bidez ebatziko du dirulaguntza-lerroen prozedura, organo kudeatzaileak egindako ebazpen-proposamena ikusita. Aginduak zehaztuko du eskatutako dirulaguntzak eman edo, hala badagokio, ukatu diren. Lehenengo kasuan, honako hauek adieraziko dira: entitate onuradunen izen soziala eta emandako zenbatekoa. Ukatutako kasuan, eskatzaileen izen soziala eta ukatzeko arrazoiak jasoko dira.

3.– Aurreko paragrafoan aipatutako Aginduak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, entitate interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango diote Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, hargatik eragotzi gabe administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko aukera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitakoaren arabera.

4.– Deialdia ebazten duen agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, gehienez ere sei hilabeteko epean, eta jakinarazpen ondorioak izango ditu. Argitalpen hori egiten den egunean bertan jakinaraziko zaie eskaeran gailu elektroniko bat eta/edo posta elektronikoko helbide bat identifikatu duten entitate interesdunei.

5.– Prozedura ebazteko sei hilabeteko epea igarotakoan, aurreko paragrafoan ezarritako argitalpena egin ez bada, entitate interesdunek dirulaguntza-eskaera ezetsizat jo ahal izango dute, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22.5 artikuluan ezarritakoaren arabera, artikulua honetako 3. paragrafoan adierazitako aukerako berraztertze administrazio-errekurtsoa jartzearen ondorioetarako.

13. artikulua.– Entitate onuradunen betebeharrak.

Deialdiaren xede diren laguntzen entitate onuradunek Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14., 27. eta 42. artikuluetan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte beti; bereziki:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, dirulaguntzen deialdia ebazten duen agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik 10 eguneko epean entitate onuradunak ez badio berariaz eta idatziz uko egiten, dirulaguntza onartu duela ulertuko da.

b) Laguntza eman den xederako erabiltzea, eta proiektua edo jarduera bete eta gauzatu izana justifikatzea.

c) Dirulaguntza emateko orduan kontuan hartutako edozein egoera objektibo zein subjektibo aldatu bada, horren berri ematea Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzari.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, dirulaguntzak emateko ebazpena aldatu egingo da, betiere dirulaguntzaren xedea betetzat jotzen bada. Horretarako, jarduera justifikatzen duen dokumentazioa aurkezteko epea amaitu eta hilabeteko epean, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak dagokion aldaketa-ebazpena emango du, eta dagozkion zenbatekoak likidatuko ditu.

d) Beste edozein administraziok, entitate publiko edo pribatuk xede bererako emandako dirulaguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskuratuz gero, horren berri ematea.

e) Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak beren funtzioak egitean eskatzen duten informazioa ematea jasotako dirulaguntzei buruz, eta, orobat, men egitea organo horiek eta, hala badagokio, Europar Batasuneko organo eskudunek diruz lagundutako proiektu eta jardueren gainean egiten dituzten ikuskatze-, jarraipen-, egiaztapen- eta kontrol-ahalmen zein -funtzioei.

f) Jasotako finantzaketaren izaera publikoaren publizitate egokia egitea, Eusko Jaurlaritzaren marka barne, dirulaguntza honen funtsekin sortu, landu eta zabaldutako edukietan. Nolanahi ere, entitate onuradunak egin beharko ditu publizitate-oharrak.

Prentsa idatziaren eta hedabide natibo digitalen kasuan:

– Diruz lagundutako komunikabide orok publizitate-ohar bat izan beharko du nahitaez, Eusko Jaurlaritzaren logotipo normalizatuak eta «Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak diruz lagunduta» esaldiak osatua.

– Eusko Jaurlaritzaren logotipo normalizatua emandako dirulaguntza onartzen den egunetik aurrera txertatuko da, eta 2026ko abenduaren 14ra arte egongo da ikusgai.

– Eusko Jaurlaritzaren logotipo normalizatua argitalpenaren kreditu-ezaugarriak adierazten diren leku berean jarriko da (editorea, zuzendaritza, idazketa, tirada, etab.), eta, hori guztiz posible ez bada, Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzarekin adostuko da entitate onuradunaren garrantzi eta ikusgarritasun bererako tokirik egokiena.

– Oro har, publizitate-ohar horrek 45 zm²-ko azalera izango du gutxienez (9 x 5 cm edo antzekoa).

Irratien kasuan:

– Diruz lagundutako irrati guztiek nahitaez eduki beharko dute publizitate-ohar bat, «Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak diruz lagunduta» esaldia jasoko duena.

– Publizitate-ohar hau egunean gutxienez lau aldiz txertatuko da: bi aldiz audientzia handieneko orduetan (06:00-10:00), hirugarrena arratsaldean eta laugarrena gauean.

– Publizitate-ohar hori emandako dirulaguntza onartzen den egunetik aurrera txertatuko da, eta 2026ko abenduaren 14ra arte egongo da entzungai.

Tokiko telebisten kasuan:

– Diruz lagundutako telebista orok nahitaez sartu beharko du publizitate-ohar bat, Eusko Jaurlaritzaren logotipo normalizatuak eta «Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak diruz lagunduta» esaldiak osatua.

– Publizitate-ohar hori egunean gutxienez lau aldiz txertatuko da: bi aldiz audientzia handieneko orduetan (21:00-24:00), hirugarrena goizean eta laugarrena eguerdian.

– Eusko Jaurlaritzaren logotipo normalizatua emandako dirulaguntza onartzen den egunetik aurrera txertatuko da, eta 2026ko abenduaren 14ra arte egongo da ikusgai.

g) Enpresa ez deslokalizatzea, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikulua araberak.

h) Publizitate aktiboaren betebeharrak betetzea, Euskadiko Gardentasunari buruzko maiatzaren 14ko 3/2026 Legearen 8.4.b) artikuluan aurreikusitako kasuetan.

14. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Oro har, diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30. artikulua xedatzen dituenak.

2.– Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira entitate eskatzaileak aurkezten duen proiektu edo jardueraren aurrekontu banakatu eta xehatuan agertzen direnak, baldin eta haren garapenarekin lotuta badaude. Era berean, egindako gastutzat hartuko da proiektua gauzatzeko epearen barruan sortutakoa eta justifikazio-aldia amaitu aurretik benetan ordaindutakoa. Justifikazio-fasean fakturak aurkeztu behar diren kasuetan, dagozkien ordainketa-egiaztagiriekin batera ez doazen gastuak ez dira, inolaz ere, diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko.

Beraz, hauek baino ez dira izango gastuak finantzagarriak:

- Langile-kostuak (edukiak sortzen, lantzen eta zabaltzen zuzenean laguntzen duten langileak).
- Gizartearen alfabetatze mediatikorako eta desinformazioaren aurka borrokatzeko trebakuntza-kostuak.
- Desinformazioaren aurka borrokatzeko, produktuak eta/edo zerbitzuak eskuratzeko kostuak (esaterako, albiste-agentziak).
- Alfabetatze mediatiko aurreratua sustatzen duten ekimen eta/edo tresnak sortu eta zabaltzeko kostuak.

3.– Langile-gastuei dagokienez, EAEko lurralde-egoitzei edo -ordezkaritzei dagozkien gastuak eta zuzenean komunikabidearen entitate titularraren mende dauden langileei dagozkien gastuak baino ez dira diruz lagunduko.

Era berean, langile-gastutzat hartuko da entitate eskatzaileari eragiten dion langileen lan-kostu gordin osoa, hau da, soldata gehi gizarte-segurantzako kotizazioa.

4.– Balio erantsiaren gaineko zergari dagozkion gastuak ez dira diruz lagunduko, entitate onuradunek berreskuratu edo konpentsa ditzaketen zatian. Horretarako, entitate onuradunak erantzukizunpeko adierazpen baten bidez adierazi beharko du dirulaguntzaren xede diren eragiketetan jasandako BEZa osorik edo zati batean kentzeko edo berreskuratzeko eskubidea duen ala ez.

5.– Entitate eskatzaileak aurkeztutako aurrekontuan, artikulua honen arabera diruz lagundu ezin diren gastuak jasotzen badira, diruz lagundu daitekeen gastu-aurrekontua zehazteko, gastu horiek kendu edo araztuko dizkio organo kudeatzaileak, diruz lagundu daitekeen gastu-aurrekontua zehazteko. Aurrekontu hori dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko oinarria izango da. Halaber, justifikazio-fasean, organo kudeatzaileak likidatutako aurrekontutik diruz lagundu ezin diren gastutzat jotzen direnak ezabatu edo araztuko ditu, entitate onuradunak aurkeztutako proiektuaren betetze-maila zehazteko.

6.– Honako hauek ez dira inola ere diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko:

a) Zeinahi gastu, justifikazio-aldia amaitu aurretik ez bada aurkeztu benetan egindako ordainketaren justifikazioa.

b) Ekipamendu-ondasunak, altzariak, euskarri teknikoak edo azpiegiturak erostea, salbu eta oinarri hauetan aurreikusitako jarduerak gauzatzeko aldiari dagokion amortizazioa duen zatia, baldin eta hori eskuratzea beharrezkoa bada deialdiaren xede den jarduera behar bezala garatzeko.

c) Banku-kontuen interes zordunak.

d) Interesak, errekarquak eta zehapen administratibo eta penalak.

e) Prozedura judizialen gastuak.

f) Monetizazio digitaleko tresnen kuotak, zeinak webgune edo plataforma bateko edukirako sarbidea mugatzen baitu eta harpidedun erabiltzaileei edo ordainketa bakarra egiten dutenei soilik ematen baitie informazioaren eduki osora sartzeko aukera. Era berean, aisialdiko produktuetan beherapenak eta sustapenak eskaintzen dituzten plataforma digitaletan parte hartzeagatiko kuotak ere ez dira diruz lagunduko.

g) Deialdiaren xedearekin zerikusi zuzenik ez duten ekitaldietara joateko, laguntzeko, sustatzeko edo antolatzeko gastuak.

h) 13. artikuluan ezarritako publizitate-oharrak (eskuratutako funts publikoei buruzkoak) sortzeko eta ekoizteko gastuak.

7.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30.3 artikuluekin bat etorriz, diruz lagundu daitekeen zenbatekoak gainditu egiten baditu sektore publikoko kontratazioa arautzen duen araudian kontratu txikietarako ezarritako kopuruak eta betiere horrek hirugarrenekin kontratatzea badakar, entitate onuradunak hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu, gutxienez, obra egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa kontratatu aurretik. Aurkeztutako eskaintzen artean egindako aukeraketa, dirulaguntzaren justifikazio-fasean aurkeztu beharko dena, eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideen arabera egingo da, eta proposamen ekonomikorik onena aukeratzen ez denean, memoria batean berariaz justifikatu beharko da.

Kontratua egin aurretik, ez da hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko gutxienez, baldin eta, haien ezaugarri bereziak direla-eta, merkatuan ez badago eskaintza horiek egin, eman edo hornitzen dituen behar adina entitate, edo gastua dirulaguntza eman aurretik egin bada.

15. artikulua.– Azpikontratazioa.

Entitate onuradunek ezin izango dute hirugarrenekin hitzartu dirulaguntzaren xede den proiektua edo jarduera osorik edo zati batean gauzatzea. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen da entitate onuradunak diruz lagundutako proiektua edo jarduera bere kabuz egiteko egin behar dituen gastuen kontratazioa.

16. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzea.

1.– Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da:

a) Lehenengo zatian, emandako zenbatekoaren % 50eko ordainketa aurreratua egingo da, behin 13.a) artikuluan ezarritako epea igarota berariaz uko egin gabe. Ordainketa aurreratua zenbatekoa 180.000 eurotik gorakoa bada, aldeztu aurretik berme erreala eratuko beharko da. Berme hori abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren 2. artikuluan dago jasota (698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena), eta berme horrek ordainketaren nominala estaliko du, gehi zenbateko horren % 3,25, urtebeteko interes gisa, eta zenbateko horren % 15, gehienez ere, balizko erreklamazio judizial edo estrajudizialaren kostu eta gastuetarako. Berme errealak betebeharraren klausula bat jaso beharko du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren aurrean, hain zuzen entitate bermatzaileak entitate onuradunarekin duen obligazioarena.

Berme erreala modu honetan eman ahal izango da:

- Finantza-entitatearen edo elkarren bermerako sozietatearen abala.
- Kauzio-asegurua.
- Eskudirua (banku-txekea, banku-transferentzia).

b) Bigarren ordainketan gainerako zenbatekoa ordainduko da, diruz lagundutako proiektua edo jarduera gauzatu dela eta horren benetako kostua justifikatu ondoren, 2026ko abenduaren 15era arte.

2.– Ez da inolako ordainketarik egingo onuradunak egunean ez baditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta, orobat, itzultzeko betebeharrak.

3.– Dirulaguntza ordaindu ahal izateko, entitateak Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saileko Hirugarrenen Erregistroan erregistratuta egon beharko du. Erregistratuta ez badago edo bankuko datuak aldatu nahi baditu, alta edo aldaketa <https://www.euskadi.eus/altaterceros> helbidean sartuta egingo da.

17. artikulua.– Dirulaguntzaren justifikazioa.

1.– Justifikazio-agiriak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira, <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta> webgunearen bidez eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluko erregistro elektronikoetan.

2.– Kasu guztietan, proiektua edo jarduera gauzatzean benetan egindako gastua justifikatu beharko da, eskabidean aurkeztutako aurrekontuaren arabera. Justifikazioa aurkezteko azken eguna 2026ko abenduaren 15a izango da.

3.– Emandako dirulaguntza justifikatzeko, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 32. artikuluan xedatutakoa beteko da, eta entitate onuradunak dokumentazio hau aurkeztu beharko du, gutxienez:

a) Diruz lagundu daitezkeen proiektuak edo jarduerak irauten duen hilabeteetan gutxienez 5 lan-gile plantillan eduki izanaren egiaztagiria. Betebehar hori egiaztatzeke, proiektuari langile-gastuak egotzen zaizkion hilabete guztietako Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren Kotizazioen Likidazioaren Ordainagiriak (lehengo TC1) eta ordainketa-agiriak aurkeztu beharko dira, bai eta erakunde ofizial baten beste edozein agiri ere, edo zuzenbidean onartutako baliozko edozein bide, alderdi hori egiaztatzeke aukera ematen duena.

Halaber, justifikatu egin beharko dira gradu-, lizentzia- edo diploma-titulu ofiziala duten pertsonen kontratazioak (komunikazioan, kazetaritzan, informazio-zientzietan eta/edo ikus-entzunezko komunikazioan), baldin eta benetan egin badira diruz lagundu daitezkeen proiektua edo jarduera gauzatzeke. Honako hauek aurkeztu beharko dira: titulu ofiziala komunikazioan, kazetaritzan, informazio-zientzietan eta/edo ikus-entzunezko komunikazioan gradua, lizentziatura edo diploma-tura, kontratua eta Gizarte Segurantzaren altan emandako aldia justifikatzen duen dokumentua.

b) 13.f) artikuluan ezarritako irizpideen arabera jasotako finantzaketaren izaera publikoari buruzko publizitate egokia sartu izana egiaztatzen duen dokumentazioa. Eskabidean hautatutako komunikabide mota guztietarako publizitatea sartu dela justifikatu beharko da. Zehazki, prentsa idatziaren eta hedabide digitalen kasuan, argitalpenaren kreditu-ezaugarriak adierazten dituen orria aurkeztuko da; irratien kasuan, publizitatearen audioak eta irratiz emana izanaren ziurtagiria aurkeztuko dira; eta telebisten kasuan, publizitatearen bideoak eta eman izanaren-ziurtagiria.

c) 30.000 eurotik gorako dirulaguntzetarako, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeak bete direla egiaztatzen duen dokumentazioa.

d) 60.000 euro edo hortik gorako dirulaguntzetarako, justifikazio-kontuak informazio hau jasoko du:

1) Dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzen duen jarduera-memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita, bai eta eskaeran aurkeztutako proiektu edo jarduerarekiko desbideratzeen justifikazioa ere.

2) Egindako jardueren kostua justifikatzeko memoria ekonomikoa, honako hauek jasoko dituen:

2.1.– Diruz lagundutako proiektuaren edo jardueraren aurrekontu likidatua, hasieran aurreikusitako zenbateko eta benetan egindako gastuen artean izandako desbideratzeak adierazita.

2.2.– Jardueraren gastuen zerrenda sailkatua, entitate hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta justifikazio-aldia amaitu aurretik benetan egindako ordainketa-data adierazita.

3) Fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten dokumentuak, edo eraginkortasun administratiboa dutenak, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan jasota daudenak, eta ordainketa egiaztatzen duten agiria.

Faktura guztiek bat etorri beharko dute Fakturazio-betebeharrak arautzen dituen Erregelamen-dua onartzen duen azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretuarekin, eta, faktura egiten duen pertsona fisikoa edo juridikoa Euskal Autonomia Erkidegoko hiru foru-ogasunetako edozeinen araudiaren mende badago, TicketBAI betebeharra garatzen duten foru-araudietara ere egokitu beharko dira.

4) Langile-gastuen kasuan, gastuen zerrenda sailkatuan langileak izen-abizenekin identifikatzeaz gain, nominak eta langileei egindako banku-transferentzien ordainagiriak aurkeztuko dira, proiektuari egozten zaizkion hilabete guztietan. Nominak taldeka ordainduz gero, sortaren ordainketaren konturako zordunketaz gain, entitate ordaintzaileari bidalitako jasotzaileen zerrenda ere aurkeztu beharko da. Zerrenda horretan langileen izenak, bakoitzari ordaindutako zenbatekoa eta karguaren data jasoko dira.

5) Gizarte Segurantzako kuoten kotizazioko langileen izen-zerrendak aurkeztu beharko dira (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren RNT eredia), gastuak egozten diren hilabete guztietakoak, enplegatuak behar bezala eta modu irakurgarrian identifikatzen dituztenak.

6) Hala badagokio, lehenengo paragrafoan aipatzen den zerrendan sartutako kostu orokorrak eta/edo zeharkakoak banatzeko irizpideak adieraztea.

7) Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30.3 artikulua aplikatuz, entitate onuradunak eskatu behar dituen hiru aurrekontuak eta/edo artikulua horretan aurreikusitako salbuespenen justifikazioa.

e) 60.000 eurotik beherako dirulaguntzak justifikazio-kontu sinplifikatuaren bidez justifikatuko dira, eta honako informazio hau azalduta:

1) Dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzen duen jarduera-memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita.

2) Diruz lagundutako proiektuaren edo jardueraren aurrekontu likidatua, hasieran aurreikusitako zenbatekoaren eta benetan egindako gastuen artean izandako desbideratzeak adierazita.

3) Proiektuaren edo jardueraren gastuen zerrenda sailkatua, entitate hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data adierazita.

Dirulaguntzaren organo kudeatzaileak behar adina frogagiri egiaztatuko du, dirulaguntza behar bezala erabili dela agerian uzteko beharrezkoak diren guztiak. Horretarako, berak hautatutako gastuen frogagarri diren faktura edo agirien kopiak eta ordainketaren egiaztagiria bidaltzeko eskatuko zaio entitate onuradunari. Gastuen egiaztagiria bidali beharko dituzten entitate onuradunak hautatzeko, laginketa sistematikoko teknikei jarraituko zaie. Horrela, laginerako lehen elementuaren ausazko hautaketa egingo da, eta, ondoren, ondorengo elementuak hautatuko dira, hirunakako tarte finkoak erabiliz.

18. artikulua.— Itzulketak eta ez-betetzeak.

1.— Honako hauek izango dira dirua itzultzeko arrazoiak:

a) Justifikatzeko betebeharra ez betetzea edo behar beste ez justifikatzea.

b) Jasotako dirulaguntzak, guztira, oinarri hauetan aurreikusitakoez bestelako proiektu edo jardueretarako erabiltzea.

c) Oinarri hauetan ezarritako betebeharrak edo, hala badagokio, dirulaguntza emateko egintzan ezarritakoak ez betetzea.

d) Dirulaguntzaren likidazio-ebazpenean adierazitako zenbatekoa ez itzultzea, horretarako ezarritako epean.

e) Dirulaguntzen arloko beste edozein xedapenetan oro har ezarritako beste edozein kasu, bereziki Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan jasotako kasuak.

2.— Aurreko puntuan aipatutako kasuren bat gertatu dela egiaztatzen bada, Euskal Herriko Diruzaintza Orokorrari itzuli beharko zaizkio jasotako diru-kopuruak eta dirulaguntzen arloko berandutze-interesak. Horretarako, abenduaren 21eko 20/2023 Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko Legearen 36. eta 40. artikuluetan xedatutakoaren arabera jokatu da.

3.— Itzulitako zenbatekoak zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko dira, legezko ondorioetarako, eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 46. artikuluan aurreikusitakoa izango da erantzukizunen araubidea.

4.— Ez-betetze partzialak onartuko dira, baldin eta diruz lagundutako proiektuari loturiko helburuak eta konpromisoak betetzeko egindako ahalegina argi eta garbi frogatzen bada, eta eskabidean aurkeztutako proiektu osoaren aurrekontuaren % 60 gauzatu bada gutxienez. Kasu horretan, dirulaguntzak esleitzen dituen agindua aldatu beharko da, proiektuaren zenbatekoa aurrekontu zenbatetsi osotik dagokion kopuruaren arabera murriztuta.

Salbuespen gisa, gauzatzen ez bada proiektua lehenago ezarritako ehunekoan, laguntza kudeatzen duen organoak kasu honetan erabaki dezake ez-betetze partzialak daudela: proiektuek ezaugarri berezi objektiboak dituztenean eta berezitasun horiek diruz lagundutako proiektuaren xedeari eta helburuari balio erantsia ekartzen dietenean. Kasu horretan, dirulaguntzak esleitzen dituen agindua aldatu beharko da, proiektuaren zenbatekoa aurrekontu zenbatetsi osotik dagokion kopuruaren arabera murriztuta.

19. artikulua.— Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa.

Datu pertsonalak Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzaren laguntzak eta dirulaguntzak izeneko tratamendu-jardueran sartu eta tratatuko dira.

Arduraduna: Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritza.

Helburua: gizarte-hedabideei zuzendutako dirulaguntzak kudeatzea.

Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko.

Hartzaileak: ez da aurreikusten datuen komunikaziorik.

Eskubideak: datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea duzu, bai eta informazio gehigarrian jasotzen diren beste eskubide batzuk ere.

Informazio osagarria: gure webgunean kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri zehatza: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/154000-cap2-eu.shtml>.

Araudia: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

II. KAPITULUA

EAE-KO ESPARRUKO EGUNEROKO KOMUNIKABIDEAK

20. artikulua.– Entitate onuraduna izateko berariazko betekizunak.

1.– EAEko esparruko eguneroko komunikabideen dirulaguntza-lerroan parte hartu ahal izango dute EAEko eremukoak diren eta 2025eko metatuari dagokion CIESek egindako Hedabideen Audientzia Azterlanaren arabera, eskaeran adierazitako euskarrien audientziak batuta, gutxienez audientzia-kopuru hau dutenak: 25.000 pertsona.

Euskara hutsean emititzen duten irratiek 5.000 entzule izango dituzte gutxienez.

2.– Euskarrietako audientziak zenbatzeko, hedabideen audientziari buruzko azterlanaren datu hauek hartuko dira kontuan: CIESen 2025eko Euskadi metatua:

– Prentsa idatzia: paperezko edizioaren audientziarako, prentsari dagokion txosteneko irakurleen guztizko balioa hartuko da kontuan* Gizabanakoak guztira (Astearen Eguna) Absolutuak.

– Hedabide natibo digitalak: kontuan hartuko da atzo Hedabide Digitalei dagokien guztizko balioa* Gizabanakoak guztira (Hedabide Digitalen Irakurketa) Hedabideen audientzia-azterlanaren absolutuak. CIESen 2025eko Euskadi metatua.

– Irratia: irratiazi dagokion entzuleen guztizko balioa hartuko da kontuan* Gizabanakoak guztira (Asteko eguna) Hedabideen audientzia-azterlanaren zenbaki absolutuak. CIESen 2025eko Euskadi metatua.

Inola ere ez da kontuan hartuko CIESen hedabideen audientzia-azterlanean harpidetza bidezko prentsa ataleko komunikabideen audientzia, ezta egunerokoak ez diren argitalpenak ere.

3.– Ezarritako audientzia-irizpideak bete eta EAEko eremukoak diren hedabideek baino ezingo dute 1. lerroko dirulaguntza jaso.

21. artikulua.– Laguntzen zenbatekoa eta muga.

1.– Dirulaguntza-lerroaren zenbateko osoa 6.000.000 eurokoa da.

2.– Eskatzaile bakoitzari emandako gehieneko zenbatekoak ezin izango du gainditu dirulaguntza-lerroaren zenbateko osoaren % 30, ez eta proiektuaren edo jardueraren aurrekontuaren % 80 ere.

22. artikulua.– Hautapen- eta ebaluazio-irizpideak.

Eskabideen ebaluazioa honako irizpideen arabera egingo da:

1.– Audientzia potentziala (gehienez 60 puntu).

Proiektuaren edo jardueraren irismen zenbatetsia baloratuko da, komunikabideak 2025ean lortu dituen audientzia-datueta oinarrituta.

60 puntuak CIEsek egindako 2025eko metatuari dagokion Hedabideen Audientzia Azterlanaren datuekiko proportzionalki banatuko dira: lerro horretan, eskaeran adierazitako euskarrien audientziak batuta, audientzia handiena duen komunikabideak gehieneko puntuazioa (60 puntu) lortuko du apartatu honetan, eta gainerakoei dagokien puntuazioa emango zaie, zuzeneko proportzionaltasun-arauei jarraikiz.

2.– Komunikazioko, kazetaritzako, informazio-zientzietako eta/edo ikus-entzunezko komunikazioko titulu ofiziala duten pertsonen kopurua (gehienez 5 puntu).

5 puntuak hedabideko langile kopuruaren arabera banatuko dira. Langile horiek proiektua edo jarduera garatzeko izango dira, eta komunikazio, kazetaritza, informazio-zientzia eta/edo ikus-entzunezko komunikazioko gradu, lizentziaturako edo diplomaturako titulazio ofiziala izan beharko dute. Era berean, kontuan hartuko dira gradu-, lizentziatura- edo diplomatura-titulu ofiziala duten pertsonen kontratazioak (komunikazioan, kazetaritzan, informazio-zientzietan eta/edo ikus-entzunezko komunikazioan), diruz lagundu daitekeen proiektua edo jarduera gauzatzeko egiten badira.

Diruz lagundu daitekeen proiektua edo jarduera gauzatzeko gradu, lizentziatura edo diplomatura komunikazioan, kazetaritzan, informazio-zientzietan, eta/edo ikus-entzunezko komunikazioan duten pertsonen kopuru handiena bideratzen duen komunikabideak gehieneko puntuazioa lortuko du apartatu honetan (5 puntu), eta gainerakoei dagokien puntuazioa emango zaie, zuzeneko proportzionaltasun-arauei jarraikiz.

3.– Unibertsaltasuna sarbidean (gehienez 2 puntu).

2 puntu emango zaizkie desinformazioaren aurkako borrokari eta alfabetatze mediatiko aurreraturako tresnen eta/edo ekimenen sustapenari buruzko informazioaren % 100 irakurtzeko eta/edo bistaratzeko harpidetzaren beharrik gabe irekian zabaltzen duten komunikabideei.

4.– Alfabetatze mediatiko aurreraturako tresnetan eta/edo ekimenetan euskara sustatzea (gehienez 3 puntu).

3 puntu emango zaizkie garatzen dituen alfabetatze mediatiko aurreraturako tresna eta/edo ekimenetan euskara sustatzen duten komunikabideei.

5.– Proiektuaren edo jardueraren kalitatea (gehienez 25 puntu).

Proiektuaren edo jardueraren kalitate orokorra baloratuko da, hiru irizpide orokorren arabera:

a) Komunikabideko langileen gaikuntza desinformazioaren aurkako borrokan eta alfabetatze mediatikoan (gehienez 5 puntu).

– Kazetaritzako estandar altuak erabiltzea; besteak beste, kode deontologikoak, informazioaren egiazkotasuna bermatzeko metodoak, independentzia eta profesionaltasuna.

– Eduki desinformatzaileak identifikatzeko eta haiei aurre egiteko edukiak sortzeko eta argitaratzeko gai den diziplina anitzeko gizataldea izatea. Horretarako, kideen lanbide-profilak eta gauzatutako jarduerak zehaztuko dira.

– Gizataldea desinformazioa identifikatu, antzeman eta horri erantzuteari buruz prestatzea eta/edo gaitzea.

– Alfabetatze mediatiko eta informazionalari buruz prestatzea eta/edo gaitzea.

b) Desinformazioaren aurkako borroka (gehienez 5 puntu).

– Desinformatzeko agenteak eta manipulaturako edukia sortzeko eta banatzeko sistemak identifikatzea, eta albiste faltsuak agertzen direnean erantzuteko metodoak, protokoloak, tresnak edo antzekoak aplikatzea.

– Teknologien erabilera arduratsua sustatzea, informazio egokia lortzeko eta, bereziki, adimen artifizialarekin sortutako eta/edo sare sozialek zabalduetako informazioa lortzeko.

– Komunikazio-jarduera berritzaileak, bai edukian, bai formatuan edo euskarrian, publiko espezifiko batzuetara iristeko, bereziki, desinformazioarekiko zaurgarrienak diren adin-taldeetara.

– Desinformazioarekiko zaurgarrien diren taldeen alfabetatze mediatikorako ekimenak eta/edo tresnak garatzea.

c) Alfabetatze mediatiko aurreratua sustatzeko ekimenak eta/edo tresnak (gehienez 10 puntu).

– Gizartearen alfabetatze mediatiko aurreraturako ekimenak eta/edo tresnak garatzea (Jardunaldiak, sariak, prestakuntzak, argitalpen bereziak, etab.).

– Alfabetatze mediatikoan inplikaturako beste eragile batzuekiko lankidetzajarduerak (ikastetxeak, elkarteak, etab.).

– Gizartea pentsamendu kritikoan gaitzeko tresnak, ekimenak eta/edo jarduerak zabaltzea, komunikazio-jarduera berritzaileen bidez, bai edukian, bai formatuan edo euskarrian, helburu espezifiko publikoetara iristeko, bereziki, desinformazioaren aurrean zaurgarrienak diren taldeetara.

– Oro har gizartearen alfabetatze mediatikoaren mailaren eta haren jarraipenaren adierazleak definitzea.

d) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren, emakumeen aurkako indarkeriaren eta LGTBI pertsonen eta migratzaileen eskubideen arloko desinformazioaren aurka (albiste faltsuak, zurrumurruak, indarkeriaren edo LGTBIfobiaren tratamendu desagokoa, arrazismoa, etab.) borrokatzeko eta arlo horretan gizartearen alfabetatze egokia sustatzeko baliabideak, neurriak edo tresnak (gehienez 5 puntu).

6.– Aurrekontua (gehienez 5 puntu).

Honako alderdi hauek baloratuko dira:

– Baliabideen esleipena proposaturako proiektuen edo jardueren helburuen eta irismenaren arabera egokia izatea.

– Gastuen deskribapen argia eta banakatua.

– Proposatutako aurrekontuaren eta proiektuaren edo jardueraren arteko proportzionaltasuna.

23. artikulua.– Eman beharreko zenbatekoa zehaztea.

1.– Balorazio-prozesua amaitutakoan, aurreko artikuluan aurreikusitako 4. irizpidean (proiektuaren edo jardueraren kalitatea) gutxienez 10 puntu lortu ez duten proiektuak edo jarduerak baztertu dira, eta gainerako proiektu edo jarduerari eman beharreko zenbatekoak zehaztuko dira.

Proiektu edo jardura bakoitzerako, puntuazioaren arabera kalkulaguntza kalkulatuko da:

$$\text{Puntuazioaren arabera kalkulaguntzaren zenbatekoa} = 1. \text{ lerroko zuzkiduraren zenbatekoa} \times \text{proiektuak lortutako puntuazioa} / 1. \text{ lerroko emandako puntuazioen batura.}$$

Puntuazioaren arabera dirulaguntzaren zenbatekoa ezarritako mugak baino handiagoa bada, hau da, lerro horretarako ezarritako gehieneko zenbatekoa (1. lerroko zuzkiduraren % 30) edo proiektatutako aurrekontuaren % 80 baino handiagoa bada, esleitutako dirulaguntza bi muga horietatik txikiena izango da.

2.– Dirulaguntza-lerrorako adierazitako zuzkidura alde batera utzi gabe, eskaerarik ez izateagatik, betekizunak ez betetzeagatik edo aurkeztutako eskabideen kalitaterik ezagatik lerrorako ezarritako zenbatekoa agortzen ez bada, Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen zuzendariak birbanaketa-proposamena igorriko dio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari. Birbanaketa hori lerro horretako entitate onuradunen artean bertan lortutako puntuazioen arabera egingo da, betiere, lerrorako ezarritako gehieneko zenbatekoa errespetatuz.

III. KAPITULUA

TOKI- EDO ESQUALDE-EREMUKO EGUNEROKO KOMUNIKABIDEAK

24. artikulua.– Entitate onuraduna izateko berariazko betekizunak.

1.– Toki- edo eskualde-eremuko eguneroko komunikabideen dirulaguntza lerroan parte hartu ahal izango dute honako hedabide hauek:

– 2.1 azpillerroa: CIESek egindako 2025eko metatuari dagokion Hedabideen Audientzia Azterlanaren arabera, gutxienez 4.000 ikus-entzule dituzten komunikabideak.

– 2.2 azpillerroa: CIESek egindako 2025eko metatuari dagokion Hedabideen Audientzia Azterlanaren arabera 4.000 baino audientzia txikiagoa duten hedabideak, edo Google Analyticsen 2025eko audientziaren laburpen-txostena aurkez dezaketen toki- edo eskualde-eremuko komunikabideak.

2.– Tokiko telebistek 2. lerroko dirulaguntza baino ezin izango dute jaso, izan 2.1 azpillerrokoa, izan 2.2 azpillerrokoa, toki eremukoak direlako.

3.– CIESek egindako 2025eko metatuari dagokion Hedabideen Audientzien Azterlanaren arabera audientzia zenbatzea erabakitzen den kasuetan, balio hauek hartuko dira kontuan:

– Prentsa idatzia: paperezko edizioaren audientziarako, kontuan hartuko da prentsari dagokion txosteneko irakurleen guztizko balioa * Gizabanakoak guztira (Astearen Eguna) Absolutuak.

– Hedabide natibo digitalak: kontuan hartuko da atzo Hedabide Digitalei dagokien guztizko balioa* Gizabanakoak guztira (Hedabide Digitalen Irakurketa) Hedabideen audientzia-azterlanaren absolutuak. CIESen 2025eko Euskadi metatua.

– Irratia: kontuan hartuko da Irratiari dagokion entzuleen guztizko balioa * Gizabanakoak guztira (Asteko eguna) Hedabideen audientzia-azterlaneko zenbaki absolutuak. CIESen 2025eko Euskadi metatua.

– Tokiko telebistak: tokiko telebisten audientzia zenbatzeko, hedabideetako audientzia-azterlanaren audientzia gehituko da: Araba metatua 2025, Bizkaia metatua 2025 eta Gipuzkoa metatua 2025. Zehazki honi dagokiona hartuko da kontuan: Telebista * Gizabanakoak guztira (Asteko Eguna) txostenaren balio absolutua.

Inola ere ez da kontuan hartuko CIESen hedabideen audientzia-azterlanak harpidetza bidezko prentsa deitzen duen komunikabideen audientzia, ezta egunerokoak ez diren argitalpenak ere.

25. artikulua.– Laguntzen zenbatekoa eta muga.

1.– Dirulaguntza-lerroaren zenbateko osoa 1.000.000 eurokoa izango da. 700.000 euro 2.1 azpilleroko hedabideetarako bideratuko dira, eta 300.000 euro 2.2 azpilleroko hedabideetarako.

2.– Eskatzaile bakoitzari emandako gehieneko zenbatekoak ezin izango du gainditu dirulaguntza-azpilleroaren zenbateko osoaren % 30, ez eta proiektuaren edo jardueraren aurrekontuaren % 80 ere.

26. artikulua.– Hautapen- eta ebaluazio-irizpideak.

Eskabideen ebaluazioa irizpide hauen arabera egingo da:

1.– Audientzia potentziala (gehienez 60 puntu).

Proiektuaren edo jardueraren irismen zenbatetsia baloratuko da, komunikabideak 2025ean lortu dituen audientzia-datuetan oinarrituta.

a) 2.1 azpillerorako, CIESen Hedabideen Audientzia Azterlana hartuko da erreferentziazat, 2025eko metatutakoari dagokiona.

60 puntuak txosteneko datuekiko proportzionalki banatuko dira: lerro honetan, eskaeran adierazitako euskarrien audientziak batuta, audientzia handiena duen komunikabideak gehieneko puntuazioa (60 puntu) lortuko du apartatu honetan, eta gainerakoei dagokien puntuazioa emango zaie, zuzeneko proportzionaltasun-arauei jarraikiz.

b) 2.2 azpillerorako, CIESen Hedabideen Audientzia Azterlana hartuko da erreferentziazat, 2025eko metatuari dagokiona, edo 2025erako Google Analyticsen audientziaren laburpen-txostenaren erabiltzaile berrien datua, 365 egunen artean zatituta.

60 puntuak audientzia datuekiko proportzionalki banatuko dira: azpillero honetan audientzia handiena duen komunikabideak gehieneko puntuazioa (60 puntu) lortuko du apartatu honetan, eta gainerakoei dagokien puntuazioa emango zaie, zuzeneko proportzionaltasun-arauei jarraikiz.

2.– Komunikazioko, kazetaritzako, informazio-zientzietako eta/edo ikus-entzunezko komunikazioko titulu ofiziala duten pertsonen kopurua (gehienez 5 puntu).

5 puntuak komunikabidean proiektua garatzera edo aktibatzerara bideratutako langile kopuruaren arabera banatuko dira, baldin eta gradu, lizentziatura edo diplomatura ofiziala badute komunikazioan, kazetaritzan, informazio-zientzietan eta/edo ikus-entzunezko komunikazioan. Era berean, kontuan hartuko dira gradu-, lizentziatura- edo diplomatura-titulu ofiziala duten pertsonen kontratazioak (komunikazioan, kazetaritzan, informazio-zientzietan eta/edo ikus-entzunezko komunikazioan), diruz lagundu daitekeen proiektua edo jarduera gauzatzeko egiten badira.

Komunikazio, kazetaritza, informazio-zientzia eta/edo ikus-entzunezko komunikazioko gradu, lizentziatura edo diplomaturako titulazio ofiziala duten pertsonen kopuru handiena bideratzen duen komunikabideak lortuko du apartatu honetako gehieneko puntuazioa (5 puntu), eta gainerakoei dagokien puntuazioa emango zaie, zuzeneko proportzionaltasun-arauei jarraikiz.

3.– Unibertsaltasuna sarbidean (gehienez 2 puntu).

2 puntu emango zaizkie hedabideetan adimen artifizialaren erabilera eta inpaktuari, desinformazioaren aurkako borrokari eta alfabetatze mediatiko aurreraturako tresnen eta/edo ekimenen sustapenari buruzko informazioaren % 100 irakurketarako eta/edo bistaratzeko harpidetzaren beharrik gabe irekian zabaltzen duten komunikabideei.

4.– Euskara sustatzea alfabetatze mediatiko aurreraturako tresnetan edo ekimenetan (gehienez 3 puntu)

3 puntu emango zaizkie alfabetatze mediatiko aurreraturako garatzen dituzten tresna eta/edo ekimenetan euskara sustatzen duten komunikabideei.

5.– Proiektuaren edo jardueraren kalitatea (gehienez 25 puntu).

Proiektuaren edo jardueraren kalitate orokorra baloratuko da, lau irizpide orokorren arabera:

a) Komunikabideko langileen gaikuntza desinformazioaren aurkako borrokan eta alfabetatze mediatikoan (gehienez 5 puntu).

– Kazetaritzako estandar altuak erabiltzea; besteak beste, kode deontologikoak, informazioaren egiazkotasuna bermatzeko metodoak, independentzia eta profesionaltasuna.

– Eduki desinformatzaileak identifikatzeko eta haiei aurre egiteko edukiak sortzeko eta argitaratzeko gai den diziplina anitzeko gizataldea izatea. Horretarako, kideen lanbide-profilak eta gauzatutako jarduerak zehaztuko dira.

– Gizataldea desinformazioa identifikatu, antzeman eta horri erantzuteari buruz prestatzea eta/edo gaitzea.

– Alfabetatze mediatiko eta informazionalari buruzko prestakuntza eta/edo gaikuntza.

b) Desinformazioaren aurkako borroka (gehienez 5 puntu).

– Desinformatzeko agenteak eta manipulaturako edukia sortzeko eta banatzeko sistemak identifikatzea, eta albiste faltsuak agertzen direnean erantzuteko metodoak, protokoloak, tresnak edo antzekoak aplikatzea.

– Teknologien erabilera arduratsua sustatzea, informazio egokia lortzeko, eta, bereziki, adimen artifizialarekin sortutako eta/edo sare sozialek zabaldutako informazioa lortzeko.

– Komunikazio-jarduera berritzaileak, bai edukian, bai formatuan edo euskarrian, publiko espezifiko batzuetara iristeko, bereziki, desinformazioarekiko zaurgarrienak diren adin-taldeetara.

– Desinformazioarekiko zaurgarrien diren adin-taldeen alfabetatze mediatikorako ekimenak eta/edo tresnak garatzea.

c) Alfabetatze mediatiko aurreratua sustatzeko ekimenak eta/edo tresnak (gehienez 10 puntu).

– Gizartearen alfabetatze mediatiko aurreraturako ekimenak eta/edo tresnak garatzea (Jardunaldiak, sariak, prestakuntzak, argitalpen bereziak, etab.)

– Alfabetatze mediatikoan inplikaturako beste eragile batzuekiko lankidetzajarduerak (ikastetxeak, elkarteak, etab.)

– Gizartea pentsamendu kritikoan gaitzeko tresnak, ekimenak eta/edo jarduerak zabaltzea, komunikazio-jarduera berritzaileen bidez, bai edukian, bai formatuan edo euskarrian, helburu espezifiko publikoetara iristeko, bereziki, desinformazioaren aurrean zaurgarrienak diren taldeetara.

– Oro har gizartearen alfabetatze mediatikoaren mailaren eta haren jarraipenaren adierazleak definitzea.

d) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren, emakumeen aurkako indarkeriaren eta LGTBI pertsonen eta migratzaileen eskubideen arloko desinformazioaren aurka (albiste faltsuak, zurrut

murruak, indarkeriaren edo LGTBIfobiaren tratamendu desagokia, arrazismoa, etab.) borrokatzeko eta arlo horretan gizartearen alfabetatze egokia sustatzeko baliabideak, neurriak edo tresnak (gehienez 5 puntu).

6.– Aurrekontua (gehienez 5 puntu).

Honako alderdi hauek baloratuko dira:

– Baliabideen esleipena proposatutako proiektuen edo jardueren helburuen eta irismenaren arabera egokia izatea.

– Gastuen deskribapen argia eta banakatua.

– Proposatutako aurrekontuaren eta proiektuaren edo jardueraren arteko proportzionaltasuna.

27. artikulua.– Eman beharreko zenbatekoa zehaztea.

1.– Balorazio-prozesua amaitutakoan, aurreko artikuluan aurreikusitako 4. irizpidean (proiektuaren edo jardueraren kalitatea) gutxienez 10 puntu lortu ez duten proiektuak edo jarduerak baztertuko dira, eta gainerako proiektu edo jarduerari eman beharreko zenbatekoak zehaztuko dira.

Proiektu edo jarduera bakoitzerako, puntuazioaren araberrako dirulaguntza kalkulatu da:

Puntuazioaren araberrako dirulaguntzaren zenbatekoa = azpilleroko zuzkiduraren zenbatekoa x proiektuak lortutako puntuazioa / dagokion azpillerorako emandako puntuazioen batura.

Puntuazioaren araberrako dirulaguntzaren zenbatekoa ezarritako mugak baino handiagoa bada, hau da, dagokion azpillerorako ezarritako gehieneko zenbatekoa (% 30) edo proiektatutako aurrekontuaren % 80 baino handiagoa bada, esleitutako dirulaguntza bi muga horietatik txikiena izango da.

2.– Dirulaguntza-lerrorako adierazitako zuzkidura alde batera utzi gabe, eskaerarik ez izateagatik, betekizunak ez betetzeagatik edo aurkeztutako eskabideen kalitaterik ezagatik lerrorako ezarritako zenbatekoa agortzen ez bada, Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen zuzendariak baliabide ekonomikoak birbanatzeko proposamena igorriko dio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari. Birbanaketa hori azpillero bakoitzeko entitate onuradunen artean bakoitzean lortutako puntuazioen arabera egingo da, betiere, azpilleroetarako ezarritako gehieneko zenbatekoak errespetatuz. 2.1 azpilleroko soberakina birbanatu ondoren beste soberakin bat sortzen bada, 2.2 azpilleroko hasierako zuzkidura handituko da, betiere, azpilleroetarako ezarritako gehieneko zenbatekoak errespetatuz.